

Donostiaren eredu parte-hartzaileari eta aurrekontu parte-hartzaileei buruzko kezka

Kalapie, Egia Bizirik, Martutene Auzo elkarte, Morlanstarrak Auzo Elkarte eta Parte Zaharrean Bizirik elkarteek publikoki adierazi nahi dugu partaidetzazko udal aurrekontuen eta hiriaren eredu parte-hartzailearen egungo funtzionamenduaz dugun kezka. Testu hau mezu partekatu bat izateko asmoz sortu da, ondoren jasotzen diren hausnarketekin identifikatuta sentitzen diren elkarten atxikimendurako irekia.

Partaidetzazko aurrekontuak mekanismo bat dira zeinaren bidez udalak aurrekontuaren zati bat bideratzen duen herritarrek proposatzen dituzten proiektuetarako. Bi urtean behin udalak proposamenen fase bat irekitzen du, eta edozein norbanakok edo elkarteek proposa ditzake proiektuak, beti ere udalak ezarritako baldintzen arabera. Zehazki, 2025eko azken edizioan, hauek ziren bete beharreko baldintzak:

- Proposamena udal-eskumenekoa izatea.
- Udal-politika orokorrarekin kontraesanek ez egotea eta interes orokorreko zat jotzea.
- Proiektu bat izatea, inbertsioa eskatzen duena eta dagokion urtean egikaritu daitekeena, aurrekontuak arriskuan jarri gabe.
- Bideragarritasun-azterketa gainditzea.
- Inbertsioa izatea ezarrita dagoen gehienekoa (400.000 euro) edo txikiagoa.
- Aurreko prozesu parte-hartzaile baten emaitza ez baliogabetzea edo onartutako udal-plan baten aurka ez joatea, eta balio demokratikoen eta giza eskubideen aurka ez egitea.
- Ez dira onartuko diru-laguntza jaso dezaketen proiektuak, azterlanen idazketak, proiektuen idazketak eta espazio publikoen egiturazko estalkiak.

Elkarte askok hartu dugu parte etengabe ekimen honetan, bai proiektuak proposatuz, bai hirian hobekuntzak sustatzeko onuragarrienak iruditzen zaizkigun proposamenak aktiboki babestuz. Prozesu horri esker, herritarrentzat eragin positiboa izan duten hainbat jarduera jarri ahal izan dira martxan. Hala ere, prozesu horietan hainbat aldiz parte hartu ondoren, uste dugu indarrean dagoen ereduak gabezia eta ondorio gaizto handiak dituela, eta zuekin partekatu nahi ditugu:

1. **Lehenik eta behin, ikusten dugu onartutako kontu-sailen zati handi bat mantentze-lanak egiteko erabiltzen dela, bai bidegorriak mantentzeko, bai hiri-azpiegituren oinarritzko beste behar batzuetarako, hala nola espaloiak konpontzeko, argiteria publikoa konpontzeko, zoladura hobetzeko, berdeguneak mantentzeko, paperontziak berritzeko eta hiri-altzariak egokitze**ko. Uste dugu hori ez dela egokia, funtsezko zerbitzuak mantentzea udalaren ardura zuzena delako eta aurrekontu arrunten bidez sistematikoki heldu beharko litzaiokeelako. Erantzukizun horiek aurrekontu parte-hartzaileetara eramateak, prozesu horien zentzua desitxuratzeaz gain, hiri-mantentzearen kudeaketa eskasa iraunarazten laguntzen du.

2. **Nahiz eta prozesuak proiektuak onartzeko edo ukatzeko irizpide definituak izan, praktikan erabaki asko arbitrarioak eta bidegabeak dira, interpretazio subjektiboetan eta argudio pobreetan oinarrituta baztertzen baitira proiektuak.**

Deigarria da ia 1000 proiektuetatik 123 bakarrik igaro direla bozkatzeko fasera. Eta, gainera, baheketa-prozesuak ez du aurreikusten herritarrek alegazioak egiteko aukerarik. Beraz, oso egoera arbitrarioak ematen dira, objekziorako aukerarik gabe. Besteak beste, honako hau ikusi dugu:

- a. Proposamen batzuk atzera bota dituzte, ustez aurrekontu-muga gainditu dutelako, nahiz eta eskala itxirik ez izan eta ezarritako mugen barruan modu apalagoan gauzatu ahal izan. (Adibidez, 27. poligonora bidegorria egiteko proposamena ez da ontzat eman arrazoi horregatik, nahiz eta proposamenak bidegorria partzialki egiteko aukera ematen duen edo material xumeagoak erabiliz aurrekontua agortu arte)
- b. Aurreko edizioetan iragazkia gainditu zuten beste batzuk baztertu egin dira aurten, nahiz eta arau berdinei eutsi. (Adibidea: 2021. urtean U motako aparkaleku alderantzikatuen proposamena aurrera atera zen, baina aurtengo edizioan atzera egin da, jada Udalak ematen duen zerbitzu baten eremuari dagokiola argudiatuz)
- c. Proiektu asko atzera bota dira “azterketa sakona behar dutela” argudiatuz, modu diskrezionalean erabilia. (Adibidea: “Blas de Otero plazako saskibaloia saskien” proposamena). Oso zaila da ulertzea horrenbeste “analisi sakon” egin behar izatea kantxa batzuk jartzeko, lehendik ere kantxa batzuk zeuden lekuan, obregatik aldi baterako kendu zirenak, eta haiek instalatzeko espazio zabala egonda. Badirudi “analisi sakonaren” aitzakia erabiltzen ari direla udalean gustuko ez diren proposamenak kentzeko. Horrelako adibideak asko dira.

[Bozketa fasera pasatzen ez diren proposamenen zerrenda osoa](#)

3. **Bidegorri sarearen garapena eta auzoetako oinarritzko behar asko ia modu eksklusiboan doaz aurrera partaidetzazko aurrekontuei esker.** Izan ere, azken urteetan bidegorrietan egindako hobekuntza ia guztien jatorria mekanismo hori da. Gure ustez, bizikleta bidezko mugikortasuna eremu nahiko estrategikoa da, iraunkortasunean, osasun publikoan eta bide-segurtasunean duen eraginagatik. Horregatik, Udalak horren aldeko apustu irmoa eta egonkorra egin behar du aurrekontu arrunten bidez. Konparazio gisa, Udalak urtero 1.000.000 eta 1.500.000 euro artean bideratzen ditu errepideen mantentze-lanetarako; bidegorrien kasuan, berriz, partaidetzazko aurrekontuen bidez proposamenek aurrera egitea lortzen dutenean soilik mantentzen dira. Logika hori ez da soilik bizikleta bidezko mugikortasunera mugatzen; instituzioek modu estrukturalen landu beharko lituzketen beste esparru estrategiko batzuetan ere erreproduzitzen da. Adibide gisa, hainbat elkartek aurkeztutako proposamen ugari oinarritzko gaiak izan dituzte ardatz, hala nola paperontziak instalatzea, inguruko argiztapena hobetzea (oinezkoen pasabideetan gaez segurtasuna bermatzeko) edo gutxieneko komun

publikoen zerbitzua gaitzea, oinarrizko behar horiek erakundeek aintzat hartu eta egitura bidez bete beharko lituzketenean.

4. Beste alderdi bereziki kezkarri bat da **prozesuak ez duela aurreikusten eztabaidarako benetazko espaziorik, ez hausnarketarako ez eta erabakiak kolektiboki lehenesteko**. Proposamenak zuzenean bozkatzeko dira, oso epe laburretan eta hedapen publiko mugatuarekin. Horrek zaildu egiten du eztabaida informatua egitea, eta nabarmen murrizten du herritarren parte-hartze zabal eta kontzientea.
5. **Baliabideen banaketa ez dator bat ekitate-irizpideekin**, proposamen bakoitzak lortutako botoen bolumenean oinarritzen baita ia eksklusiboki. Ikuspegi horrek mesede egiten die, modu sistemikoan, biztanleria handiagoa edo mobilizatzeko gaitasun handiagoa duten auzoei, kontuan hartu gabe oinarrizko beste faktore batzuk, hala nola jasotako inbertsio historikoa, auzo bakoitzaren behar espezifikoak, dauden desberdintasunak edo oinarrizko azpiegituren falta. Ondorioz, egungo ereduak lurraldeen arteko desorekak birsortzeko joera du, zuzendu beharrean, eta edozein politika publiko gidatu beharko luketen justizia sozialaren printzipioetatik aldentzen da. Adibidez, biztanle gutxien dituzten auzoak, Martutenek kasu (2.700 biztanle), desabantaila nabarmena dute beren proiektuak aurrera ateratzeko orduan, Amara bezalako auzo jendetsuagoen (30.192 biztanle) aurrean. Proposamen batek eska ditzakeen 500 botoak lortzeko, Martutenek bizilagunen %18,5 mobilizatu behar du, gutxi gorabehera; Amaran, berriz, nahikoa da herritarren %1,6 inplikatzeko. Kontuan hartzen bada, gainera, biztanle gehien dituzten auzoak jaso dutela inbertsio historiko handiena, dinamika horrek, lurraldeen arteko desorekak mantendu ez ezik, sakondu ere egiten ditu.
6. **Prozesuaren egungo funtzionamenduak, elkarteak eta auzoak beren artean baliabide mugatuaren alde lehiatzera bultzatzen ditu**, desiragarriena litzatekeelarik udalak hiriko kolektiboen arteko lankidetzak eta elkarlana bultzatzea.
7. Azkenik, ezin aipatu gabe utzi **onartutako proiektu askok atzerapen nabarmenak izaten dituztela egiteko orduan**, eta, gainera, urte batzuk itxaron behar izaten direla haiek gauzatzeko.

Gogoeta horietako askorekin bat egiten dute hiriko elkarte eta kolektibo ugariak, eta horietako batzuek erabaki dute prozesu horretan aktiboki ez parte hartzea, hain zuzen ere egungo ereduarekin ez daudelako ados.

Arrazoi horiengatik, idatzi honi atxikitako elkarteetatik zera eskatzen dugu:

1. Lehenik eta behin, **aurrekontu parte-hartzaileak ez daitezela izan saski-naski bat zeinetan udalak berezko ardurak delegatzen dituen**, hala nola oinarrizko zerbitzuak mantentzea edo bizikletan mugitzeko sarearen egiturazko garapena. Partaidetzazko aurrekontuak hiriari balio erantsia emango dioten proiektu puntualak bultzatzeko erabili beharko litateke; oinarrizko beharrei, berriz, beste mekanismo batzuen bidez eta udal-plangintza egonkor baten bidez erantzun behar zaie.

2. Bigarrenik, **egungo parte-hartze eredua birpentsatzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Herritarren parte-hartzea ezin da mugatu boto puntual bat ematera;** hiriaren eraikuntza kolektiborako prozesu erreal baterantz eboluzionatu behar du. Ildo horretan, beste udalerri batzuetako esperientzietan inspiratzera eta parte-hartze eredu eraginkorragoetan eta kalitate handiagokoetan sakontzen duten azterketa eta analisisietan oinarritzera gonbidatzen dugu udala.

Jakinarazpen honekin bat egin dute elkarte eta talde hauek:

- Kalapie Hiriko Txirrindularien Elkartea
- Egia Bizirik
- Martutene Auzo elkarte
- Parte Zaharrear Bizirik
-

(*Atxikimenduen zerrenda irekita dago, eta kide berriak sartu ahala eguneratuko da)